



OROTARIKO SUBSTRATU ARRITMIKOEN ABLAZIO ENDOKARDIKOARI BURUZKO INFORMAZIO-ORRIA

*SEDAZIOAREKIN/ANESTESIA OROKORREKIN

Zertan datza prozedura?

Azterketa elektrofisiologiko bat (EEF) eginez gero, arritmia mota eta haren pronostikoa diagnostika daitezke, baita horiek sortzen diren bihotzaren lekua eta sortzen dituzten nahasmenduak ere. Horrela, aplikatu beharreko tratamendua bideratu ahal izango da.

Zainaren ziztadaren eta/edo arteria femoralaren bidez, hainbat kateter sartzen dira (oso kable finak, luzeak eta malguak), eta bihotzeraino bideratzen dira, X izpien edo nabigazio ez-fluoroskopikoko sistemen bidez kontrolatuta.

Ablazioa tratamendu mota bat da bihotzaren erritmoaren alterazio jakin batzuk (arritmiak) dituzten pazienteei aplika dakiekeena, eta alterazio horiek aldeztu aurretik egindako bihotzeko EEFaren bidez diagnostikatuak dira. Arritmiak sortzen dituzten fokuak lesionatzeko aukera ematen du, tentsio txikiko energia-korronte bat (irradi-frekuentzia) edo krioenergia erabiliz, arritmia horiek ezabatuz. Prozedura horren bidez, erredura (ablazio) baten antzeko lesioa eragin nahi da arritmia eragiten duten puntuetan.

Nola prestatu behar dut probarako?

Beharrezkoa da BARAURIK egotea proba egin baino 6 ordu lehenagotik gutxienez. Anestesia orokorra erabiltzen denean, anestesiako aurrez aurreko kontsultan anesthesiologoak ezartzen dituen sendagaien gomendioak bete itzazu.

Zure ohiko botikak ur pixka batez har ditzakezu, medikamentu antikoagulatzailea barne (Sintrom[®], warfarina, dabigatran, apixaban, eribaroxaban edo edoxaban).

Diabetikoa bazara:

- Aurreko gauean ohikoa den intsulina-dosia hartu.
- Ez duzu diabetesaren aurkako pastillarik hartuko gosarian.
- Prozeduraren aurretiko INTSULINA AZKARRA ez hartu.
- Goizean intsulina basala hartzen baduzu (Levemir[®], degludek, glargina...), hartu ohiko dosia PROZEDURAREN ONDOREN.

Hortzordea baduzu, harrera-solairuan ospitaleratzean kendu beharko duzu.

Behar izanez gero, eskuineko izterondoko ileak soilduko dizkizute, baina, nahi izanez gero, zure etxean egin ahal izango duzu proba egin aurretik.



Non egingo didate proba?

5. solairuan, AUO Txagorritxuko D eremuan.

Nola egingo didate prozedura?

Ablazio mota zein den, anestesia lokala erabiliz egingo da, eta kasu batzuetan sedazioa eskatu ahal izango da.

Birika-zainen ablazioari dagokionez, sedazioa edo anestesia orokorra erabiliko dute, mediku anestesioologo batek kontrolatuta, eta aldez aurretik ebakuntza aurreko azterketa eginda. Krioablazioa, ordea, anestesia lokala eta sedazioa erabilita egingo dute. Anestesioologo batek kasuaren balioespen ez-presentziala egingo du. Irrati-frekuentzia bidezko ablazioa bada, prozedura anestesia orokorra erabiliz egingo dute, aurrez aurreko anestesia-kontsultan ebakuntza aurreko azterketa eginda.

Ospitaleratze-unitatean hartzen zaituen erizainak zain-bide bat jarriko dizu, ahal dela ezkerreko besoan, prozeduran behar izan ditzakezun botikak emateko.

Ohatilan etzango zaituzte harrera-gelan emango zizuten ohe-atorra jantzita, eta beharrezkoa denean soilik biluztuko duzu zure gorputza. Prozedura osoan zure bihotzaren jardueraren erregistroa ikusteko elektrodoak jarriko dizkizute, baita tentsio arteriala hartzeko mahukatxo bat eta atzamarrean saturimetro bat. Halaber, intubazio orotrakeala eta aireztapen mekanikorako konexioa ere egiteko aukera egongo da, prozedurak anestesia orokorra behar badu.

Ondoren, oihal kirurgiko bat jarriko dizute zure gorputza estaltzeko, eta eskuineko izterondoaren aldea soilik utziko dizute agerian. Era berean, anestesia lokala emango dizute ziztada egingo den lekuan, prozedura mingarria izan ez dadin.

Prozeduraren iraupena aldakorra da; batzuetan 4-5 ordua arte luza daiteke, eta pazientea ohean egon beharko da prozedura egin eta hurrengo 6-8 orduetan.

Zer egin behar dut ablazioa egin ondoren?

Hurrengo 12-24 orduetan ospitaleratuta egongo zara, egindako ablazio mota zein den.

Ziztadak egiten diren beheko gorputz-adarrak atsedena izan beharko du prozedura amaitu eta hurrengo 6-8 orduetan.

Ezin izango duzu jan proba egin eta 2-4 ordu igaro arte, eskatutako anestesia mota zein den.